

## DIRULAGUNTZA-PROGRAMEI BURUZKO EBALUAKETA 2020

### LEHENDAKARITZA

1. Europako ikerketa-proiektu traktoreak Horizonte 2020 Programaren bigarren faseko deialdietara aurkezteko laguntzak, Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sareko agenteak buru direla .....	2
2. 2020ko euskal etxeentzako dirulaguntzak.....	4
3. Egoera larrian dauden pertsonentzako dirulaguntzak 2020 .....	6
4. Kanpo-harremanen eremuan gazteak prestatzeko bekak.....	8
5. Quebec eskualde estrategikoarekin 2020-2021erako lankidetzako tekniko proiektuak egiteko laguntza-programa .....	10



#### 1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

**Europako ikerketa-proiektu traktoreak Horizonte 2020 Programaren bigarren faseko deialdietara aurkezteko laguntzak, Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sareko agenteak buru direla**

#### 2.- Araua

92/2019 DEKRETUA, ekainaren 25ekoa, zeinaren bidez dirulaguntzak arautzen baitira ikerketa-proiektuak aurkez daitezzen bultzatzeko, Horizonte 2020 Europako Ikerketa Esparru Programaren bigarren fasean, Zientziaren, Teknologiaren eta Berrikuntzaren Euskal Sareko kide diren agenteak buru direla.

EBAZPENA, 2019ko abenduaren 11koa, Lehendakartzaren Idazkari Nagusiarena, zeinaren bidez argitara ematen baita 2020ko ekitaldirako laguntza-programaren deialdia.

#### 3.- Programaren araua, deialdia eta emate-erabakia (EHAari Hiperesteka)

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2019/07/1903243e.pdf>

[https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2019/12/e19\\_0247.shtml](https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2019/12/e19_0247.shtml)

#### 4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Diru-laguntzen programaren xede nagusia da Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sareko eragileen jarduera ez-ekonomikoa babestea, H2020ko bigarren faseko deialdietara Europako Ikerketa Proiektu Eragileak aurkeztera bideratua, Ikerketa eta Berrikuntza Ekintzen (RIA) eta Berrikuntza Ekintzen (IA) modalitatean. Proiektu eragiletzat hartzeko eta laguntza-programan sartzeko, beharrezkoa da Europako proiektua erakunde eskatzaileak koordinatzea, lau milioi eurotik gorako dimentsioa izatea eta, gutxienez, euskal enpresa batek parte hartzea.

Hauek dira diru-laguntzen programaren beste helburu batzuk:

1. ZTBP Euskadi 2020ren intereseko eremuetan Euskadiko I+G+b jarduera finantzatuko duten H2020 Programako funtsak erakartzea bultzatzea, Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sareko Eragileen bitartez.
2. H2020 programako Ikerketa eta Berrikuntza Ekintzen (RIA) eta Berrikuntza Ekintzen (IA) bigarren fasean euskal eragileek aurkeztutako proposamenen kalitatea eta arrakasta-probabilitatea hobetzea.
3. Europako Ikerketa Proiektu Eragileen euskal lidergoa sustatzea, helburuak Euskadiren interes estrategikoetara bideratzeko eta enpresen parte-hartzea bultzatzeko.

#### 5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean

2020ko deialdian 3 proiektu eragile aurkeztu dituzte Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sareko erakundeek. Proiektu horietako bik 54.022 euroko diru-laguntza jaso dute, hirugarrenak ez baititu



beharrezko baldintzak betetzen (euskal enpresek aurkezteko eta parte hartzeko epea). Hasieran aurreikusitako 20ak baino dezente gutxiago dira.

Eskaera kopuru baxu horren arrazoia bikoitza da:

- 1) 2020an deialdi gutxiago egin dira fase bikoitzean euskal erakundeentzat lehentasunezkoak diren gaietan, Horizonte 2020 Europako esparru-programaren azken urtea baita.
- 2) 1. fasea pasa dute aurreikusitakoak baino proiektu gutxiagok euskal erakundeek gidatutakoak, lehia handia dagoelako eta Europako ebaluazio-prozesuaren baldintza zorrotzak betetzen direlako.

Laguntza jaso duten bi eskaeretatik, bakar batek ere ez du onartu Europako ebaluazioaren 2. fasea. Fase honetan, Europako Batzordeak proiektuen onarpenaren batez besteko historikoa 1/4koa da (aurkeztutako 4 proiektutik 1 onartu da).

Horrela, 2020ko deialdiaren emaitzen ebaluazioa negatiboa da, aurreikusitakoa baino eskaera gutxiago jaso direlako, eta diruz lagundutako proiektuetako batek ere ez duelako gainditu Europako Batzordearen bigarren faseko ebaluazioa.

#### 6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emaitza</u>
Lagundutako eskabide kopurua	20	2
Emandako laguntzak	600.000	54.022
Proiektu arrakastatsuen kopurua	5 (25%)	0 (44%)
Mobilizatutako funtsen bolumena, guztira	40 milioi	0 milioi
EBk finantzatutako euskal aurrekontua	6 milioi	0 milioi
Europako funtsen eransgarritasuna Euskadirako	3 milioi	0 milioi



## 1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

**2020ko euskal etxeentzako dirulaguntzak**

## 2.- Araua

50/2008 DEKRETUA (EHAA Zk. 69/2008) martxoaren 18koa, euskal etxeentzako diru-laguntzak emateko araubidea ezartzen duena.

175/2014 DEKRETUA (EHAA Zk. 176/2014) irailaren 9koa, Euskal Etxeentzako diru-laguntzak emateko araubidea ezartzeko Dekretua aldatzekoa.

EBAZPENA, 2019ko abenduaren 17koa, Kanpo Harremanetarako idazkari nagusiarena, zeinaren bidez deialdia egiten baita euskal etxeentzako 2020ko dirulaguntzak emateko

## 3.- Programaren araua, deialdia eta emate-erabakia (EHAARI Hiperesteka)

50/2008 DEKRETUA

175/2014 DEKRETUA

EBAZPENA, 2019ko abenduaren 17koa, Kanpo Harremanetarako idazkari nagusiarena, zeinaren bidez deialdia egiten baita euskal etxeentzako 2020ko dirulaguntzak emateko

EBAZPENA, 2020ko irailaren 2koa, Kanpoan den Euskal Komunitatearentzako zuzendariarena, 2020. urtean Euskal Etxeei eman zaizkien dirulaguntzen berri ematen duena

## 4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Euskal etxeentzako dirulaguntzak ohiko gastuak, jarduerak antolaketak eta azpiegitura eta ekipamendu gastuak finantzatzeko.

## 5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean

Lortutako emaitzak:

IV. Kapitulan 645.684,79 € esleitu ziren (782.300 € aurrekontuan) 16 herrialdeko 76 euskal etxeetara eta VII. Kapitulan 120.000 € esleitu ziren (120.000 € aurrekontuan) 7 herrialdeko 28 euskal etxeetara.

Eragina gizartean:

Pandemia egoera zela-eta, euskal etxeetako batzuk beren proiektuak berrikusten hasi ziren, eskaerak egokituz. Esleipenen ondoren ere, esleitu beharreko azken kopuruak murrizten ari dira; izan ere, euskal etheen jardueraren zati handi bat bertan behera geratu zen, eta horietako askok on-line egin behar izan dituzte programazioak. Zuriketa egiteko epea 2021eko ekainaren 30ean amaitzen denez, ezinezkoa da egindako jardueren azken kopurua zehaztea, aurrekontuan sartutako jarduera guztiekiko.

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emitza</u>
Inbertsioak egiteko laguntzen kopurua	10	28
Sustatutako jardueren kopurua	300	+666



## 1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

**Egoera larrian dauden pertsonentzako dirulaguntzak 2020**

## 2.- Araua

222/2003 DEKRETUA, irailaren 30ekoa, Euskal etxeei diru-laguntzak emateko deialdia arautzeko dena. Diru-laguntza horiek atzerrian dauden euskal gizataldeetako partaideak diren eta egoera larrian eta asistentzia faltan dauden pertsonen laguntzeko dira.

EBAZPENA, 2020ko apirilaren 2koa, Kanpo Harremanetarako idazkari nagusiarena, zeinaren bidez euskal etxeei dirulaguntzak emateko 2020. urteko deialdia egiten baita, atzerrian dauden euskal gizataldeetako partaideak diren eta egoera larrian eta asistentzia-faltan dauden pertsonen laguntzeko

## 3.- Programaren araua, deialdia eta emate-erabakia (EHAari Hiperesteka)

222/2003 DEKRETUA

EBAZPENA, 2020ko apirilaren 2koa, Kanpo Harremanetarako idazkari nagusiarena, zeinaren bidez euskal etxeei dirulaguntzak emateko 2020. urteko deialdia egiten baita, atzerrian dauden euskal gizataldeetako partaideak diren eta egoera larrian eta asistentzia-faltan dauden pertsonen laguntzeko

EBAZPENA, 2020ko azaroaren 23koa, Kanpoan den Euskal Komunitatearentzako zuzendariarena, zeinaren bidez euskal etxeei dirulaguntzak ematen baitzaizkie atzerrian dauden euskal gizataldeetako partaideak diren eta egoera larrian eta asistentzia faltan dauden pertsonen laguntzeko

## 4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Helburua da euskal etxeei laguntza ekonomiko zuzenak ematea, euskal gizataldeetako partaideen asistentzia premiak eta egoera larriak atzitzeko urtean zehar

## 5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartea

Lortutako emaitzak:

187.986,18 € esleitu ziren (202.000 € aurrekontuan) 7 herrialdeko 15 euskal etxeen 112 familientzako.  
Batez besteko diru-laguntza: 1.678,45 €

Eragina gizartean:

2020 urtean ere Kubatik eta Venezuelatik etorritako eskaerak dira gehien kopuruz.

Laguntza horiek oso baliagarriak dira, eta gizarte eragin onuragarria dute kanpoan den euskal komunitatearen sektore kaltetuenetan.

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emitza</u>
Laguntza jaso duten familia kopurua	100	112



## 1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

**Kanpo-harremanen eremuan gazteak prestatzeko beka**

## 2.- Araua

12/2019 DEKRETUA, urtarrilaren 29koa, Kanpo-harremanen eremuan gazteak prestatzeko beka arautzen dituena.

## 3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAri Hiperesteka)

12/2019 DEKRETUA, urtarrilaren 29koa, Kanpo-harremanen eremuan gazteak prestatzeko beka arautzen dituena.

EBAZPENA, 2020ko irailaren 23koa, Kanpo Harremanetarako idazkari nagusiarena, zeinaren bidez beka iragartzen baitira, kanpo harremanen eremuan gazteak prestatzeko, 2020-2021eko aldirako.

EBAZPENA, 2020ko abenduaren 18koa, Kanpo Harremanetarako idazkari nagusiarena, zeinaren bidez beka esleitzen baitira, 2020-2021erako kanpo-harremanen eremuan gazteak prestatzeko.

## 4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Beken helburua da gazteen prestakuntza sustatzea kanpo harremanen arloan.

## 5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean

2020-2021 ekitaldian, gazteak kanpo harremanen arloan prestatzeko 8 bekaren deialdia egin zen.

- 2 beka: Kanpo Harremanetako modalitatekoak, Vitoria-Gasteizerako.
- 4 beka: Europako Gaietarako modalitatekoak. 2 Vitoria-Gasteizerako eta 2 Euskadiren Europar Batasunerako Ordezkaritzarako, Bruselan.
- 2 beka: Kanpoan den Euskal Komunitateko modalitatekoak, Vitoria-Gasteizerako.

6 beka esleitu ziren, eta Kanpoko Euskal Komunitateko modalitateari dagozkion 2 beka hutsik geratu ziren, aurkeztutako pertsonak ez baitzuten beketako baten esleipendun izateko gutxieneko puntuazioa lortu.

Beken praktikotasuna oso garrantzitsua da beken esleipendunentzat. Kanpo harremanen arloko espezializazioa CVari erantsitako balio bat baita, eta lan-merkatuan lehen lanpostua lortu aurreko maila bat.



Era berean, beka horien erabilgarritasuna garrantzitsua da, izan ere, beka horien esleipendunei aukera ematen die Euskadiko Administrazio Orokorra, Europako erakundeak, nazioarteko sareak eta munduko hainbat tokitan dauden euskal etxeak "in situ" ezagutzeko, hizkuntza desberdinak praktikatzeaz gain.

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emitza</u>
Beken kopurua	8	6



1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

**Quebec eskualde estrategikoarekin 2020-2021erako lankidetza teknikoko proiektuak egiteko laguntza-programa**

2.- Araua

47/2019 DEKRETUA, martxoaren 26koa, Bazkide Estrategikoen Sareko kanpoko eskualdeekin lankidetza teknikoan aritzeko proiektuetarako laguntzak arautzen dituena.

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAari Hiperesteka)

47/2019 Dekretua:

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/es/p43aBOPVWebWar/VerParalelo.do?cd2019001625>

Quebecekin 2020-2021erako proiektu teknikoak egiteko laguntza-deialdia:

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/es/p43aBOPVWebWar/VerParalelo.do?cd2019005908>

Esleipen-ebazpena:

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/es/p43aBOPVWebWar/VerParalelo.do?cd2020002876>

Deialdiaren ebazpenean jasotako betetzeko epealdiak aldatzen dituen ebazpena

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/es/p43aBOPVWebWar/VerParalelo.do?cd2020004929>

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Quebec eskualde estrategikoko pertsona juridikoekin 2020-2021 aldian gauzatzen diren aldebiko jarduketara eta lankidetza-proiektuak finantzatzeko laguntzak, Euskadik eta Quebecen 2017ko urriaren 31n sinatutako elkar ulertzeko memorandumean jasotako gaiari lotuta. Honako hauek dira laguntzak:

- Kultura. Kultura-arloko ezagutza eta esperientzia trukatea, zehazki: ondarea; artisten mugikortasuna; kultura-arloko artisten, sortzaileen edo industrien truke profesionalak; eta kulturari lotutako obren, ondare-ondasunen eta produktuen hedapena.
- Hizkuntza-politika. Bien hizkuntzen garapenean eta sustapenean eremuko adituen eta ikertzaileen trukea, eta esparru horretako informazioaren eta jardunbide egokien trukea.
- Ekonomia. Negozio- eta inbertsio-aukerei buruzko informazio-trukeak Euskal Autonomia Erkidegoaren eta Quebecen artean. Herrialde bakoitzak itsasoari lotutako ekonomiaren hazkunde jasangarrian dituen esperientziak trukatea.
- Ingurumena. Klima-aldaketaren eta ingurumenaren babesaren aurkako borrokari buruzko informazioa eta jardunbide egokiak trukatea.
- Ikerketa, garapen teknologikoa eta berrikuntza. Informazioa eta esperientziak trukatea, eta baterako jarduerak sustatea nazioarteko partzuergoetan.



5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean

Emaitzak: 14 proiektu aurkeztu ziren: bat baztertu egin zen, ez zituelako aurkeztu 47/2019 Dekretuaren 5.2 artikuluan araututako Quebeceko bazkidearen aitorenak, beste bat baztertu zen erakunde eskatzaileak atzera egin zuelako, lau proiektu baztertu egin ziren puntuazio nahikoa lortu ez zutelako, eta zortzi aukeratu ziren.

Aurrekontu-betearazpena: Aukeratu ziren 8 proiektuetatik, 7ri dirulaguntzaren gehieneko zenbatekoa eman zitzaion (5.000 €), eta besteari 4.900 €.

Aurrekontua: 2020an:75.000 €, 2021eko konpromiso-kredituak: 25.000 €

Gizartean duten erabilera eta eragina:

Dirulaguntza honen jatorria 3.2.6 «Euskadiko Bazkide Estrategikoen Sarearekin laguntza teknikoko proiektuetarako laguntza-ildoak»-n dago munduan euskal interesak sustatzeko helburu estrategikoari dagokionez 2018-2020 aldirako Kanpo Harremanetarako Plana betetzeko, aliantza estrategikoak garatuz eta finkatuz. Helburua da laguntza-ildo bat sortzea atzerrian dauden eskualde, herrialde eta erakunde estrategikoekin lankidetzara teknikoko proiektuak bultzatzeko eta sustatzeko, betiere Euskadiren interesak sustatzeko Euskadi nazioartekotzeko lehentasunezko zatitza jotzen diren eremu geografikoetan.

Deialdi hau Quebec eskualde estrategikoarekin lankidetzara-proiektuak egitera dago zuzenduta; izan ere, eskualde horrekiko harremanetan sakondu nahi da eta sinergiak bilatu nahi dira, Euskadik eta Quebecek 2017ko urriaren 31n sinatu zuten elkar ulertzeko memorandumean jasotako interes komuneko eremuetan.

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emaitza</u>
Diruz lagundutako proiektuen kopurua	20	8